BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4909

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 12koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Kalitatea sustatzeko fundazioei laguntzak emateko 2014ko ekitaldiko bigarren deialdiaren berri, betiere Merkataritza Banaketaren sektorean Berrikuntza eta Bikaintasuna garatzeko laguntza-programa arautzen duen Aginduak ezarritako esparruaren barruan.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez, Merkataritza Banaketaren sektorean Berrikuntza eta Bikaintasuna garatzeko laguntza-programa arautu zen (2011ko abuztuaren 16ko EHAA). Geroago, 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez (2014ko abuztuaren 18ko EHAA), aldatu zen agindu hura.

Agindu harekin bat etorriz, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2014ko abuztuaren 20ko Ebazpenaren bidez, Merkataritza Banaketako enpresetan Merkataritza Bikaineko eta merkataritza berrikuntzaren zabalkundeko jarduerak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen (abuztuaren 28ko EHAA, 162. zk.).

Deialdian ezarritako epean aurkeztutako espedienteak ebatzi ondoren, eta han ezarritako kreditua agortu gabe dagoela kontuan hartuta, 2014ko ekitaldian bigarren deialdi bat egin behar da Merkataritza Bikaineko eta merkataritza berrikuntzaren zabalkundeko jarduerak egiteko laguntzak emateko. Horretarako, beharrezkoak diren arauak eman behar dira:

Hori dela eta, indarrean den araudiak ematen dizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da 2014ko ekitaldian bigarren deialdi bat egitea, hain zuzen ere Merkataritza Banaketaren sektorean Berrikuntza eta Bikaintasuna garatzeko laguntza-programa arautzen duen Aginduan ezarritako laguntzak emateko. Deialdiak helburu bakarra izango du: Merkataritza Bikaintasunaren ziurtapen-programako laguntza-lerroa.

Helburu hori betetzeko, 77.680 euro banatuko dira Kalitatea Sustatzeko Fundazioen artean, honako era honetan: gehienez 60.000 euro, programa koordinatu, jarraipena egin eta kontrolatzeko; eta 1.040 euroko zenbateko aldakor bat, egindako ebaluazio bakoitzeko –guztira, gehienez ere, 17.680 euro.

2. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabide-eredua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan, edo bestela Interneteko honako helbide honetan: www.euskadi.net/comercio.

2.– Eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Merkataritza Zuzendaritzari zuzenduta bidali behar dira, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lurralde historiko bakoitzean duen lurralde-ordezkaritzan aurkeztu, edo Eusko Jaurlaritzak duen Herritarrari Arreta Eskaintzeko Zerbitzuan (Zuzenean), zuzenean edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administra-

zio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein bide erabiliz.

3.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta deialdi honek berekin dakartzan gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bitartez egin ahal izango dira, Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren eta E-Administraziorako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenaren arabera.

Kasu horretan, eskabidera sartu eta hura betetzea Euskadi.net-eko https://www.euskadi.net/comercio egoitza elektronikoaren bidez egin ahal izango da, betiere laguntzetarako deialdia argitaratu ostean. Eskabide-eredua esandako egoitza elektroniko horretan egongo da eskuragarri.

4.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta, 1. artikuluan ezarritako kreditua lehenago agortu ez bada, ebazpena argitaratu eta hamar eguneko epean bukatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 12a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
ITZIAR EPALZA URQUIAGA.